

Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan

Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduan matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztiona den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilera sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira. Hori horrela, Akademiak Nafarroako haurren gurasoak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu eta beren seme-alaben heziketarako D eredia (euskarazko irakaskuntza Gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langileei.

Euskaltzaindia a favor del modelo D en Navarra

Se ha anunciado el plazo de inscripción para el próximo curso escolar 2014-15 en la enseñanza de Navarra. Al igual que en años anteriores, las familias tienen la opción de matricular a sus hijos e hijas en el modelo D (enseñanza en euskera con la asignatura de Lengua Castellana), tanto en la

enseñanza pública como en la red de ikastolas. Los mencionados centros educativos vienen ofreciendo a la sociedad navarra en general y a los padres y madres en particular, una excelente opción para educar a sus hijos e hijas abiertos al mundo que les rodea a partir de la lengua y cultura propias de esta Comunidad.

Entre los cometidos específicos asignados a la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia figuran la protección del euskera, su capacitación como medio de expresión a todos los niveles de la sociedad y la promoción de su uso. Es por ello, que en aras de dicha finalidad, Euskaltzaindia invita a tomar parte activa a las familias y les anima a optar por el modelo D para la educación de sus hijos e hijas. Al mismo tiempo, desea felicitar a los padres y madres que optan por dicho modelo, así como agradecer y ofrecer todo su apoyo al profesorado y demás personal que desde hace muchos años han trabajado y siguen trabajando con gran entrega y excelentes resultados en el mencionado modelo educativo, tanto en la red pública como en la red de las ikastolas.

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n.
Bilbao, 31 de enero de 2014.